Gora Baxänabarré eta Mehäiné hèrria

Parisètik Abéndo Haméka

Hèrria kaśetaren buruzagi adichkidéak

Hauna bigarrén aldikotz hèldu näitzuin mézu béraren éntzun-Varaztérat; éspéranzan aditua izäin naïzela ahalik lastérrénian.

Oroz léhen ézarr dezaatan Jaun-Jainkoari éskérrak jakin arrazten déraitzuet arras osasun onian nagoéla Pariseko zéru gris. lanhostatu batén azpian; eta zuéri ala Eskual-Hérriko jendétziari béra zait gélditzen ospatzéko; eta éré bér dénboran ikhusiz urthé berriari hurbilduak garéla egiten deraitzuet guziéri urthé onaren désira, nahiko chédeen burunatzéko désirkundiarékin?

Duéla bizpahiruz asté izkiriatu neraitzuétén nola sazöina akabatua nuen Chez La Baronne De Laddoucétte eta béraz hemendik aunzina othoi igort-zindézaten Hérria Kaséta olai nizan tokirat, astia jin, astia juan béhi béha égotua naiz noiz bada hunat berriz igorriren zindautaten kaśeta hori eta géhiago ézin egonéz berriz abértitzérat héldu naitzue, ez dézaazien kaśet hori à Viels-Maisons igort; zé miakulu den géthatzen deus ez nakiké ala galdu duzien nik igorri minzaldia, bizkitartian ez zäit bada letra "Retour à l'envoyeur" ethorri; béraz ézatu duzié; baiman ez funtsik haitzen affantziaz Zuzénbidiaren sagnatzéko, enfunts deus ez nakiké zér den agitzen?

nik dakitana behar baino Bi egun berianto eskuratzen dudala
kasét hori eta ez bethi estatu hobérenian, doy-doy irakurt-gisan
Algériat-éré garrbikio izaiteş nuen; gauz hunén gainian ez ziezté zueķ
hobéndun bainan gutio proména balédi nihauri buruz direktuki adrézatua
balitz izaiten dudan baino hobékio-eskura nio, allo béraz adichkidé
irakurléa égizu indarr tipi bat arian zuzénbidé berri hunetarat igorrtzéko
irakurgay hori eta nik sekulan éginén zituztetadan baino hobékiago Jaun
Jainkoak saristaturéz zitu, ez utz béraz egun égiten ahal duzuna biharérat
badakizu alabainan jénua ez déla gurea, ohoin baten paré hérioak
éramaiten ahal zituéla "eta nuéla éiran gabia"? Ez naiz nahi hasarétu
bainan ez zait posiblé laudorioén égitea, gogo kontra ez naizélakotz mintzatzen
ahal; behar bézéla utzia dudan jauregian jendé onén artian ninzen, ézin
askó péatchu émanéz arra hunatt hiş-arrazten dautaté; jultitu batzu balire
suan ézarr-lioté deus konpréndituzen ahal ez duten irakurgaya! Azkénik
éskuratu kasétan orainO usaiaren ez galzéko ez ditut irakurtu nik igorri
Pértsu zaharraķ, haatik aithor dut kolore pichkat duten pértsuaķ ézin-
géhiago plazérrekin irakurtu ditudala, hala nola Etchaméndy Jean-nén
kobla maraitsuaķ, eta holako; gauz-hunén gainian hartzé dituzie guzieķ
mérézi ditutzuén laudorioaķ. Égungotz huntan uzten zituztet alabainan orai
éginogo dut néré itzulignua Eskual-Etchérat igandian baititugu biga désa-
pitatuaķ "mussian" Milla, Millaka graintziaķ Eskual-Herri guziari eta
partikularzki soldadoguan ézagutu bi adichkidé haukiez / Baptiste Mendiondo
érretor-geyari eta Michel Itçaina Aldudarrari, balin-baduzu izkiriatzen gostu
adichkidé irakurléa atsegin duké azkén hunén zuzénbidiarén éskuratzia, égin
dezaakatan urthé-onarén désira. Ahur-éskuaķ émanéz déraitzuét guzieri
bestaldi artino eta Ez Adioritz? Joachim Ithurburu[illegible]

MOUSTIRATS

Astéaité Arratsa 9ᵗᵃ.

Redwood City, Otsail Zortzia

Segur Herriaren Buruzagia

Labur bada labur, ézin égon nintaké mutu, zuré phartéz izkiriátu dautan présuna préstuari, éskérrak itzuli gabé?

Izkiriatzaléák dion bézéla segur izan ditut, eta atséginékin, espératzen ez nuén "HERRIA" kasét bat, bai eta éré aurthéngo Almanaka, neuré phartétik éskérrak millaka, eta ez ziréztė ahantziak izanén ézén phentsu duzun bézéla usté-gabéko zoriona zait Almanaka horrén irakurtzia, guziz partikularzki ez bainaitzuéten galdétua éré, orai duéla urthé paré-bat izan-nuén galdétunik bainan ichiltasunak choilki zaitun ihardétsi, menturaz nik éré beriantchégi galditu bainuén; édozoin gisaz éskérrak éré agért. arrazi duzuén artikuluaz horri éskér éré, izan ditut phensatzen nuén bézéla, adiskidé batzuen irakurtzéko zoriona, Soldado lagun, eta bertzé, eta aithor dut

Ontsa plazér égin daukutéla heyen irakurtziak, ziotélaük "asfaldian izkiriàtu nahiak ginaudéan héméntché ez ginduelakotz hiré zuzentrideik" ikhusten duzuén bézéla heyiri éré zerbitzu égin duzué, biba zuék, eta ségi béétik! Barkhatu éré néré ausartzia, érdaraz irakurtuari éskuaraz ihardésten balin badut, ez gaitzi har, bainan huna hitz-batez guzia zer den gerthatzen, Anglésa ez ikhasi, Frantsésa ahantzi, éskuara bédéren banaki; eta diot bitchi iduritu zitzautala agérkari Éskualdunian ikhustia norbéit niri izkiriàtu duéna Frantsésez, alian phénsatu dut, afantziaz nik Frantsésez baino géhiago, ez zakiéla éskuaraz izkiriatzen, bértzénaz ni bézélako irakurléari, ez zaitan horéla ihardétsiko, gaïcho Éskual-Herria zer dugu bada, ez aski éskualdunik holakuétaz béhartzéko, oraikotik ikhusten dut norat goatzin, eta ordu-deno hobé-dugu éréitia, hazia-gal-ez dadin; funtsian gauden-béha gerùak zer érrain-duén?...

~~[illegible]~~ Ukhaldiaz balia nahi! baliz-badituzué agért-arazi igortzen éré dauzkitzuét orai duéla Bi asté HERRIAN irakurtu Kusiak éginikako pértsu heyen ordaniak doakion Piréakékin S.V.P orai artian bézéla zuék nagusi, égizué gostu duzuéna, hastéko ez beldurrik izan gézurrik irakurtzen duzuéla! Aldi bat oraino éskérrak ihardétsi dautan, eta sinadura ézin irakurtua dudan présunari Adiorik ez ikhus-artino eta bésté ùtheiadino Jainkoak atsegin baliz-badu

Bi éskualdun Gratien eta Béronika Ybustiets